

“LANA ETA INPLIKAZIOA”



M. Karmen Azpiazu | Elgoibar Ikastola | LH 1

Txikienei zaila egiten zaie, agian, lehiaketaren dinamika partekatzea, baina oso ondo ulertzen dute naturak balio handia duela. Iritzi hori du M. Karmen Azpiazu irakasleak, Ikono planetan honen irabazle izan den Elgoibar Ikastolako Lehen Hezkuntza 1eko Ausartak 3C taldeko arduraduna denak.

Nabaritzen dute ikasleek lehiaketaren fase hau irabazteak dakarren ezagumendua?

Ez, gu saiatzen gara ebaluazioaren emaitzak ez argitaratzen . Esan diodana izan da gure lana inguru honetako lanik onenetarikoa izan dela eta horregatik argazkia aterako digutela.

Baina, sarituak sentitzen dira?

Ez dute jaso saririk, beraz ez dute inongo itxaropenik. Gainera aurten aurkeztu dugu lana lehendabizi eta oraindik ez dakite oso ondo nola funtzionatzen duen.

Fase honetan finalista izateak motibatzen al ditu ikastetxeko beste talde batzuk?

Goi mailetan beharbada bai, baina gure mailetan LHn ez du zertan.

Zalantzak izan zenituzten garatu beharreko gaia aukeratzeko?

Ez genuen arazorik eduki. Beharbada gure ikasleek sentiberatasun handia izaten dute naturarekin lotutako gai guztiekin. Inplikazio handiz egin zuten ipuina eta gustoko izan zen lana.

Zer zailtasun gainditu behar izan zenituzten lana egiteko?

Denbora kudeaketa: orduen antolaketa. Ipuinak denbora dexente behar izan zuen (lehengo bakoitzak berea egin, ondoren irakurri, ondoren aukeratu eta azkenik ordenagailuan idatzi.

Zein da gai honetatik ateratzen duzuen irakaspén nagusia?

Natura zaindu behar dugula denok.

Zer espero duzue Kosmodisea ekimenaren gaineraketik?

Beste planetetan lana bideratuko dugula, emandako ikuspuntutik abiatuta eta ikasle bakoitzaren aportazioa gaineratuz